

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA. DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bigarren urtea • Pamplona - Otsaila - 1967 • 12^{gn}. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

LENBIZIKO URTE BURUA



Excmo. Sr. D. Felix Huarte Goñi Vicepresidente de la Excmo. Diputación Foral de Navarra.

Urte bat bete du gure aldizkariak.

Diputazioak aste-astetik ezarritako lerroan xuxen jokatu du. Jakintzaren aldeko eginkizuna du begien aurrean, bihotzaren deia bazterrerara utzi gabe...

Ez ginuke, mintzo den lekutan, eskuara galtzen utzi nahi; erdararekin batera aurrera atera baizik.

Bi izkuntza jakiteak ondore onak ekarriko ditu: eskuara zahar eta aberatsa galdu gabe, gain mailleko ikasgaietan behar den erdara jakin daike. Elgarrekin eskuz-esku joan ditezela! Auxe da gure jokabidearen asmoa.

Gure esker ona idazle guzietari.

Eskerrak, izenak eman dituzten sei mila Napparoko familieri.

Eskerrik beroenak «Principe de Viana» elkargoari, buru egiten duen Jose Esteban Uranga jauna, eta Diputazioako lendakari ospetsu Felix Huarte barne direla.

Gure esker on au Nafarroan eskuara mintzo dugun 70.000 arimen izenean emaiten dugu. Ez ginuke gure izkuntza ederra galdu nahi, eta bai azkartu eta zabaldu, Nafarro zabaleko beste aberastasun guziki bezala.

Nafarroak, bat izanik, ez-berdintasunean baidu aberastasunik arrigarriena.

Hoy cumple un año nuestra Revista.

Ha sido fiel a los principios que le señaló nuestra querida Diputación. Los principios son estrictamente culturales y si queréis sentimentales.

Conservar el vascuence navarro en las zonas donde hoy se habla, haciéndolo compatible en la práctica con el idioma nacional. Hacer posible un bilingüismo evitando dos males; la pérdida del viejo idioma de nuestra antigüedad y la dificultad de acceso a la cultura general por falta de fluencia en el idioma castellano. ¡Que convivan cordialmente juntas! Este es nuestro objetivo.

Nuestra gratitud a los muchos colaboradores.

Nuestra gratitud a las familias —ya 6.000— suscriptores y lectores de la Revista.

Nuestra gratitud a la Institución «Príncipe de Viana», a su Presidente don José Esteban Uranga, y al Excmo. Sr. Vicepresidente de la Diputación Foral de Navarra don Félix Huarte.

Nuestra gratitud en nombre de los 70.000 navarros que todavía hablamos el vascuence y que queremos conservarlo, como queremos que se conserve —que crezca, viva y florezca— todo lo navarro, sea ribereño o montañés, para que esta Navarra, una y variada, grave con su entera personalidad en el conjunto de la patria española.



D. José Esteban Uranga Galdeano. Director de la Institución «Príncipe de Viana»

Diputazioaren euskeraren aldeko erabakia

Napparoko Diputazio oso agurgarriak 1967^{ko} Ibeltzaren 25^{ean} artutako erabakia:

«Bostehun Napar Ikastetxe Nagusiko ikaslek, euskera eskol-gaietan «ofizialki» sartzeko zerbait egin dezan eskatuz, Diputazio oni zuzendu dioten eskea ikusi ondoan; eta Migel Jabier Urmeneta, Diputado jaun, Jose Esteban Uranga, Principe de Viana elkargoko buru, eta Euskeraren aldeko sailaren aintzindari Pedro Diez de Ulzurrun jaunek elkarrekin eman duten iritzia entzunik.

ERABAKITZEN DA: 1.^o Diputazio onek, euskera eta biak dazkiten haurrekin egiten duen lan onaren berri eskale oieri emaita. Gañera, eta bi izkuntzen arteko giro ona sortzeko asmoan, Elkargo Nagusi onen ustez bide bakarra baita, aldizkari euskaldun bat ilabetero argitaratzen du eta, 6.000 (sei mila) aletara heldu da.

2.^a Ikaskintzako goi-agintariekin elkartuz, lenbiziko eskoletan, eta bereziki eskol bateratu eta euskera mintzo edo erdi-mintzo duten erri aunditxoetan, ordu erdiko eskola bat egunero euskeraz, beren nahi duten haurrendako ezarriko du Diputazioak. Beste eskolaz landa, eta aren segidan izango da. Obekienik lanean ari diren erakusle eta ikasleak sarituak izango dira. «Principe de Viana» sailako euskeraz arduratzen direneri, au aurrera ateratzeko eginbide eta erabakiak artzeko baimena emaiten dakio.

Eta oraingoz, Ulzama, Elizondo, Doneztebe, Leitze, Lekunberri, Irurzun, Erroibar, Etxarri-Aranaz, Altasu, Auritz. Aezkoa eta Otsagin eskola oien idekitzeak eskatuko luken gastuaren aurrerapen bat ekar dezala.

3.^a Baita ere, beste eskolatxo eta berek eskatutako jende aundien ikastolak sortzeko eskubidea emaiten dakio «Principe de Viana» elkargoari. Pundu ontatik sortutako gastuen berri emango du; eta, era berean, toki edo beste edozein errestasunen eskatzeko Alkate jauneri egin behar zaizkien gora-beretan Diputazioara joko da.

4.^a Euskal erritan Diputazioak egingo dituen izendatze guzitan, euskera jakitea kontuan artu eta mesedetako izango da.

5.^a Egiteko auen betetzeko, Jose Maria Satrustegui, euskaltzaina, eta Jose Manuel Lasarte, apez jaunna, lenagotik den Pedro Diez de Ulzurrun, sendagille jaunarekin batera lankide izendatzen dira.

6.^a Erabaki auek Napparoko B. O. delakoan argitaratuko dira. Eta xehetasunen berri emango duen liburuxka bat prestatuko dute «Euskeraren aldeko» sail ontan direnak. Bere egunean argitaratu litaike.

7.^a Diputazioak bere gain artzen du gai ontzagintarieri egin laizken eskeak egitea.

8.^a Napar Ikastetxe Nagusiko eskaleeri ere eman bedi erabaki onen berri.

9.^a Eta Napparoko apezek egiteko ontan duten garrantzi aundia ikusirik, Jaun Apezpikuari erabaki onen berri emaita ongi iduritu zaigu. Bere Eliz barrutiko jokabideak erakusten dion neurrian, orai artio bezala jarrai eta ugaritu dezan gure jakintzaren alde egiten ari den lana, eskerrak emanez.

Ala erabaki zuen Diputazioak eta nik itzemaiten dut.

J. URIZ. IDAZLARI

«Euskeraren Aldeko» Sailaren Lankide Berriak

José María Satrustegui Zubeldía.

Arruazun (Sakanan) sortua, 1930^{ko} Azaroaren 15^{ean}. Ikaskintza Iruñen egin ondoan, 1955^{an} apeztu zen eta Meza eman.

Iru bat ilabetez Madotz errian egonik, Luzaidera bialdu zuten apez lagunetako. Bederatzi urtez bete du egiteko au. 1964^{an} Urdiaingo erretor izendatu zuten eta geroztik or dago.

1957^{an} Eskual-Akademiak laguntzailetako artu zuen; eta 1964^{an} euskaltzain oso.

Aldizkari askotan agertzen dira bere lanak. Ots, «Egan», «Euskera», «B.A.P.», «Príncipe de Viana», eta beste.

«Bordel Bertsularia» izenako liburua argitaratu du, Luzaideko bertsulari onen bizi eta bertsu guziekin.



J. M. Satrustegui

José Manuel Lasarte Mugiro.

Etxarrin (Larraun) jaioa, 1927^{ko} Uztailaren 20^{ean}. Ikaskintza Iruñen egin ondoan, 1951^{an} apeztu zen eta Meza eman. Lau urte Luzaiden egona, bederatzi urte Berueten eta orain bi urte baditu Leitza bizi dela «Industria eta Nekazaritzako» Eskolaren Zuzendari izendatua. Euskal Akademiak laguntzaile izendatu zuen 1963^{an}.



J. M. Lasarte

NAPARRO'KO "ERRIEN EDERKETA" BIGAREN TXAPELKETAREN PREMIOEN BANAKETA



Yoan den Ilbeltzaren astearte zen amargarrean, Napparro'ko Diputazioaren Jauregian, «Errien Ederketa» Txapelketan premiatuak izan ziren errietako Aiuntamenduei, Agintariei, eta Apezpei irabazi zituzten Sariak banakatu zizkioten.

Diputazioaren Jauregiko Gela-Nagusian Huarte Jaun Lendakaria, Marko, Bañon, eta Belasko Diputatu Jaunak, Uriz idazlari edo Sekretarioa, «Erri Yakintza», Turismo eta Liburutegien Zuzendari den Jaime del Burgu Jauna, eta sarituak izan ziren erri guzietako Alkate, Apez eta Ayuntamenduen ordezkariak bilzu ziren.

Feliz Huarte Presidente Jaunak itzaldi mamitsu eta labor bat mintzatu ondoan, Erriberri (Olibe)-ko Alkate jaunak erantzun zuen eta segidan Sarien banaketa izan zen.

Jarriko ditugu emen Sariak irabazi zituzten Erri, Alkate eta Apez batzuen izenak, ez baita lekuri guzietan argitaratzeko:

Eun Milla pezetako Sariak eta Bereziko Aipamenak:

Baraibar, Almandoz, Erriberri, Kaskante, Funez, Kortés eta Elo edo Monreal'ko Aiuntamenduak jaso zituzten.

Berrogeitamar milla Pezetako eta oi ezbezelako (bere aldiko)

Aipamena:

Gazolaz'ko Erri Batzarrak.

Ogeitamar milla pezetako eta oi ezbezelako Aipamena:

Otsagi, Erronkari eta Erreta'ko Muruarte errietako Aiuntamenduak.

Ogei milla pezetako eta Oi

Ezbezelako Aipamena:

Etxalar, Amayur, Legasa eta Zubietako Aiuntamenduak.
Amar milla pezetako eta Berezikuntza:

Almandoz'ko Rosario Arregi, Errazu'ko Yose Fagoaga, Lesaka'ko Gilermo Agara, Lesaka'ko Shalbador Iturria, Sunbilleko Miren Latasa, Otsagi'ko Eugenia Mikeleiz..., eta auzin geiago.

Ogei milla pezetako eta

Berezikuntza:

Erramon Apecechea, Almandozko; Erramon Agirre, Azparren-Olaldeko; Gregorio Etxarte, Añezkarko, ... eta abar (apezak).


Dominiak (Medaillak):

Kaskante, Funez, Kortés, Elo, Erriberri, Baraibar, Almandoz, Otsagi, Gazolaz, Etxalar, Erronkari, Etxalar, Amayur, Zubietako, Legasa, eta Zizur'ko Alkateak.

Denara 810.000 (Zortzi zehun t'amar milla) pezeta banatu ziren.

Yoan den Ilbeltzaren numeroan atera genituen eskuiduriak Luzaide'ko seme trebe eta argi den Bartolome Setuain'ek egiñak ziren. Gure eskerrak berari!

Franzisko Xabierreko'ari «GRAZIAREN BEDERATZIURRENA»



Datorren Epailak (Martxo) 4 egunean asiko da Xabierreko Franzisko'ari eskeindutako «Graziaren Bederatziurren» deitua den aitz maite eta ezagutua.

Ona emen Xabierre'ko Gazteluan Bederatziurrenako egunetan izanen diran eginkizunen goraberak:

Epailak, 4'ean:

Oitura denez, Liedena eta Yesa'ko Beillak.

Epailak 5'ean:

Gizon eta Mutillen 27'gn. Ibillera.

Epailak 10'ean:

Emakumeen Beilla, eta Urteoro egiten den Zangoza'ko erriarena.

Epailak 12'ean:

Neskateen Ibillera.

Apeznausigo, edo Apezlen-barrutien Erromesaldiak:

Napparro'ko Apezpikutzaren Barrutiak ogeitamar Apeznausi lurzati edo lurralde ditu, eta iru urtean bein Apezlengo lurralde, edo Artxipres-

tazgo bakoitzak Xabierre'ko erriari bere joan-etorria egin oi du. Urte batean, beraz, amar joan bearrak dira, eta ona emen aurtengoak: Saraitzu, Erronkari, Orriaga, Doneztebe, Solana, Biana, Tudela, Ierri, Urroz eta Erribera.

Bederatziurrenaren Sermolaria; Jesusen Lagundikoa den Aita Yosú Moneo Agurgarria izanen da.

**FRANZISKO XABIERREKO
YAUNDONIARI ABESTIA
(KANTUA)**

Gora dezagun guztiok Franzisko Xabier Deuna, Jainkoarentzat ainbat erri irabazi zuena.

Gurutze bat eskuetan, arturik ibiltzen zan, siñismena zabalduaz, fedegabeen artean.

Napparrok!, oyu biotzez,
Gora Franzisko Xabier!!

ESKUALERRIKO LEIOA

• MADRID.—Eskuara eskoletan erakusten asteko eske bat egin zuen Euskaltzaindiak. Agintarien erantzuna artu da. «Atsegin aundiarekin ikusi duela jaun Ministroak Euskaltzaindiaren karta, eta zer edo nola egin laiken aztertuko dutela». Asiera da.

Gu bezala ba dira Espainian beren izkuntzak erdararekin eskuz-esku ikusi nahi lituzketen beste batzuk ere. Eta zendako ez? Ageriko zer aterako den...

• NARBAIT JAUNA OHORATIA.—Berri pozgarria Bidasoz beste aldetik heldu zaiguna! Eskualzale aundi eta gain maillako idazle Narbaitz jauna, «Legion d'honneur» delako medaillarekin saritu dute.

Ez da leku txarrean erori izendarena! Zenbat lan motetan ez du bere jakinduri eta azkartasunaren neurria emana zaldun berriak! Musika dela edo Liturjia (entzun ginuen Urretxuan bere itzaldia); filosofi eta teologian berdin jarria.

Bana eskual lanetan, batez ere, P. Arradoy'en izenpean ezagutzen dugun idazlea ez da nor-nahi! «Kattalinen gogoetak» eta orai «San Frantses Jatsukoa», aipatu ginezake beste askoren artean.

Zorionak bihotzez Be-Napparoko adiskide minari!

• BILBAO.—Deusto Ikastetxe Nagusi, Unibersidade barnean Euskera gaietako eskola berezia sortzekoak dira. Eskual gauzak artuz dijoazen giroak poztan gaitu. Garaiz konturatuko ote gera?

Eskualerri guziko txistulariak ere beren batzarra izan dute. Erri bakoitzak bere txistulariak behar lituzke. 2813 txistularik beren izena emana diote elkargo oni. Oietarik:

222 dira Araba'koak.
653 Gipuzko-aldekoak.
252 Napparak.
1.409 Bizkai'tarrak.

• BELAR FABRIKA.—Aspaldi aipatu beharra ginuen Bizkayan egin duten belar fabrika. Gezurra dirudi; baño egia da. Etxe barnean eta iruzkirik gabe egiten dute. Eta belar ona!

Orozko da erriaren izena; eta sei bat egunez belarra berde berdea ateratzen zaie askatxo batzutan. 150 kilo lasto egunean; ogei bat beirendako janaria. Zertako uda denboran beroarekin borrokan ibili! Eta langararen bildurrik ere ez! Belar fabrikak egin eta kitto!

Urte bat eta erdiz bere gastua pagatua omen du.



ELIZAREN ITZA

Bigilien aldaketak dirala ta... Galdera batzuei erantzuna

Nere adixkide on ori, agur: Arritzen zera, lenik, lege aldaketa okin, zez alda bada, diozu, lengo Jainkoa? Bai noski, Jainkoa bera da, eta baru eta bigiliak gordetzeko ere Beraren legea, baño noiz eta nola bete Elizaren laugarrena, Xristo Jainkoak eman zion Elizari legeak emateko eta beteatzeko eskubidea, Eliz-Agintariak lotzen dutena, lotua izango dala zeruan eta askatzen dutena askatua; oraingo arazo ontan gañera, argi-uzteko legea urte guziko ostiraletan, lege zarra da, kristal guzik betetzen zutena Espaini eta Portugalen landara beren menpeko erriekin, otan² Espainiko erregeak eskatuta. Elizak lege berexi bat eman izan oi du, ots, Bulda artzeakin garizumako ostiral ta beste banaka batzutan bakarrik gorde bear zan bigilia, gañerakotan barkaturik zeuketen; aurtendik kentzen da Bulda ori eta Espainiko kristauak beste gañerako kristauekin berdintzen dira. Ez al dago egokiago? lege berexi edo pribilegio oiek bazartzeko sasoian bizi gerala iruditzen dakit.

Aldapa gora egingo zaizula, astero astero, bigili gorde bear ori? ortantxe dago, ordea, irabazbidea edo meritua, neke orrekin Xristo nekalduren antz pixka bat artzen duzu, Xristoren miñ-osiñari tinta batzuk erasten tiozu.

Gañera, garizumako ostiralez at, beste guzitan aixetzen dizu, beste penitentzi mota batzun aukera zerorren esku utzita, penitentzi ok izan ditezke.


A) Otoitza, lagun-artekoa bada obe, meza, senitarteko arrosarioa, Liburu Santuen edo Santuen bizitzen irakurtzea e.a.

B) Barua, jangarri goxo edo garestien uztea, tabako edo ardo edo beste edari batzuk ere bai, itz batez, zer edo zer gogor edo zail egiten dakizuna.


C) Limona edozein beartsuei ixilik emana, edo Slizak diru batzueko jarriririk dauzkanai eman, Karitas dakiote.

Azkenik au esango dizut, lege berri au betetzeko erarik egokiena, jatorrena, ostiralero bigili gordetzea duzu, aldin batean ezin baduzu, au da, zail badakizu, len aipatutako oitatik bat aukera zazu; nora nai, pan-leku, edo fondetara, ostiralez sartzen zelararik, bigili bazkaria eska zazu eta Elizaren eta Xristoren sailleko nabaritzen eta airtortzen zera.

Orra nere iritzia azaldu, Elizarena bera, bete eta betearazi. Agur.



Gañeko fotoan Zizur Txiki errian dagon etxe aundi zar bat ikusten da. Bekokoan etxe ber-bera Joakin Erronkal'ek berriztatu, xuritu eta txukundua. Ikasbide ederra Erronkal jaunak nappar denontzako eman diguna!



USTEGABE TA USTEDUN...

Zintzoa zaren edo malzurra; biotzez zuzen edo makurra, nik ez dakit.

Egun untako zure bizia zikiña ote ala garbia, nik ez dakit.

Zure lanetik duzun nekea, aberats edo sari gabea, nik ez dakit.

Gaur goiz txoriak kantuz diona, illunabarrez gaitz edo ona, nik ez dakit.

Txerri urdamak zenbatsu ume? ta zumarikak zenbatsu zume? nik ez dakit.

Ongi datorren lur idortea; bearrezko den ur agortea, nik ez dakit.

Biar saltzeko nun aratzea... obe gaur ilta zulatoratzea?... nik ez dakit.

Atzorañoko adiskidea on dan gaurtikantsa etsaitutzea, nik ez dakit.

Zintzo bizita zintzo iltzea guretzat dela beti ohea nik badakit.

Zeruko poza bizitz garbia: zuzena, beti munduko argia: nik badakit.

Lanean ongi baldin gabiltza, gurekin dugu zeruko giltza: nik badakit.

Egun guzian zintzo danari, illunabarrez pake ugari: nik badakit.

launarengandik datorkiguna, guretzat aski; bear duguna: nik badakit.

Lur idortea ta ur agorte, zeruko Yaunak nai duen arte: nik badakit.

Yaunaren esku dago den-dena; baño gu gaitu Biotzan lena: nik badakit.

Adiskide ezik Aita goxoa bai dala egiz gure Yainkoa: nik badakit.

IBARRONDO

JUAN BASURKO

Gipuzkoa'ko seme zintzo au 1890 urtean jaio zan eta 1957'go Abenduaren 25 egunean, Eguberrian, il zan. Guraso kristauengandik sortua, Ondarrabi'ko errian jaioa, baño bere bizi guzian auzoko erri den Irun'en bizi eta bai ta ere illa.

Euskal olerkari bikaiña izan zan, ona emen Sariketa aunitzetan sarituak bere olerkien izen batzuek: «Nere Baxerri txuria», Biarritz'en. «Agur Sortzez Garbia», Bayona'n. «Axular'en omenez», Sara'n. «Arantzazu'ko Birgiñaren Edestitxo», Arantzazu'n. «Inazio Deuna», eta oberena den «JESUS» en bizitza.

Beratar olerkari den Joakin Aldabek, «in memorian», bertso aukeratu zizkion:

IRUN URIAN JAIO TA BIZI IZAN ZAN OLERKARI GORAGARRI «BASURKO» ZANAREN OROIMENIAN. G. B.

kendu zendun lurra egunak beteta. Zerura jun ziñan Jaun bakez aseta. Usuak bezela goruntz egaketa. ¡Goruntz menditara altxatuz kopeta!

Ta Kristo izan zan zuretzat mendia. Antxen zuk zeukazun jarrita begia. Eriotzako orduan illun gabe argia. Irabazi zendun zorian jar tokiya

Ereñ zendun munduan itz garbi aziya. Suspertzen ari da, t'auditzen asiya. Goi bizi lekutik iritxi graziya on zale izan dedin gure Euskal Erriya.

Olerkari bikaiñ ezautu zaitugu. Zure lan ederra maitiak ditugu. Zorion oso-osua opatzen dizugu. Gure zai nun zauden ondotoxko dakigu.

Nire itz motelak ezertxo ez dira. ¡Ai bikañaguak neuruta balira oraiñ biyaltzeko zeru goi garbira! Zu gure errukiz zaitugu begira

JOAQUIN ALDAVE

Bere lurreen dabillen arte zergatikan galerazi?

— 8 —

Iñoiz okerrik ez du ekarri izkuntz asko ikasteak, maixu euskaldunak bear dituzte nexka-muttiko gazteak; lenengotik ar dezan indarra batek bezela besteak, ai! zenbat oker ekarri duan, anai-arreba maiteak, gure gazteak ikastetxean euskera ez entzuteak.

— 9 —

Guratso zarren oitura onak galtzerik ez du merezi, alkartutza saia gaitzen ta gogoz lanean asi; euskera jarri erreztasunak nai duten danak ikasi, Euskal-erriko soñu ta dantza, zenbat oitura ta jantzi, munduan berdin gabeak dira, bañan IZKUNTZA lenbizi.

— 10 —

Euskal-aniak, euskal-arrebak, alkartu danok batera, guratso aiek eska zutena guk eska zugun oster; mami mamitik landu dezagun euskaldun onak bagera, noiztik zatozen iñork ez daki z'noiz arteraño ote zera? Munduan, azken egun bitarte entzun dedilla EUSKERA!

GORTARI UGARTE'tar YON



Martin Oreja, Errazkingo bertsolaria, bertso aukeratu dizkiguna, Etxarri-Aranaz errian Bertsolari-txapelketa batean aritzen. Aldamenean Alfontso Irigoyen, Euskal Akademikoa, eta Bertsolarien txapelketa guziaz zuzentzen dituena.

BERTSO BERRIAK

EMAKUMEAN MODA BERRIKO JAZKERARI BURUZ

Azaroko illaren 30 eguna zan, Donostitik, Tolosa aldera natorren, trenan esehi leku berean 80 urteko Apaiz Jaun on batekin suertatu nintzan, kontuak esanaz armoni onean, iritxi giñan Hernanira, an sortu ziran bi emakume, tren ortara, eta eseri ziran gure aurrean, guri begira aurpegiz aurpegi, eta Apaiz Jaun orrek ikustean, ayek zeramakiten jazkera lotsagarria, antiajuak kenduta, bere poltzikuan sartu zituan, esanaz: «lotsagarria da gaurko emakume askori begiratzea, orrengatik kendu ditut, antiajuak, ez ikuste arren».

Pentsatu nuen gai au artuta dozenatxo bat berso ipintzea al dedan moduan.

— I —

Gai oni buruz millaka daude jaunak arrazoy osuak; erdi agiriñ daramazkite petxuak eta besuak; ta gonak berriz, betikan estu belaunaz gora jasauak; txit lotsagarri, ortxe dabilta eziñ aldatuz pausuak; beste munduan, pagatuko'itu oyen anima gaisuak.

— II —

Emakume askon buru ariñak ola jaztean poztuta; erropa gutxin kejarik gabe neurri eskasetan moztuta; ondo ezdagola esan ezkerok kopetak jarri beztuta; esan leiteke, oyek dabilta burutik erdi nastuta; gorputz illkorra apañtze arren animaz oso aztuta.

— III —

Aitortu nai det argi ta garbi emakume askoren griña; elkartutzean zenbait alditan dantzaten dute mingaña; «auzoko Marik gaur eraman diñ oaingo modura egiña; soñeko motza, besorik gabe gorputza, ariñ ariña; politagoak, ginduzken gure ola jantziko bagiña».

— IV —

Emakumeak, ok entzun arren ez asarretuta jarri; nik nai nukena, ezta besterik zuek kontuan erori; aski dezute, begiratzea konzienziako ispilluari; zuen jazkera, nola diraden gazte askoren galgarri; bere begiaz ikusizian bistan oiñbeste aragi.

— V —

Mundu ontako gorputz bizitza luzenaz ere laburra; nun eta nola, ilko geraden jakiten ezta samurra; orrengatik, beti izan zugun pekaturako bildurra; errespetuan beti eramanez jantzia eta oitura; konzienziari begiratuta Kristau zinzoan modura.

— VI —

Emakumea zuk badakizu zure aurrekoen legea; Konzienziari begiratuta gaurkoa bañan ohea; janzi moduok, sortu zaizkigu kasi goizetik gabea pensatzen gaude, zer ikusteko gauden emendik aurrea; danon gañetik, begira dago Zeru luraren Jabea.

— VII —

Itxura ortan, janzi gorputzak dijuaz paseatzera; gaubeko amaikak inguru arte iñoiz ezdatoz etxera; lengo oitura sano guztiak bota ditzute galtzera; baserritarrak izanagatik; kaletarraren antzera; amaika anima eroriko da betiko infernu beltzera.

— VIII —

Aste guzian, aita, ta ama berari errian gogotik; Apaiza berriz, jai egunetan gogorrako aldairetik; bañan oraingo gazte askori bateri etzaye inportik; lagundutzeko iñoiz ezdute beran antzekoan faltik; gaur edo biar, guraso onak nola irtego'ira oitatik.

— IX —

Lendabiziko, janzi errespetoz bigarren erretirua; beti ortara mintzatuzen da guraso zarren gogua; Apaiza berriz, sarri ojuka ezta erretirik nekatua; nai luke bañan, gizarajuak eziñ jarri errespetua; itz baterako, gazteri asko gaur dagolako galdua.

— X —

O, zenbat aldiz, Apaiz jaun oyen agotik gaude, entzunik; baña aintzakotzaz ezdegu artzen askotan oyen esanik; ez egiteko, iñun sekula bide txarreko lagunik; ezdala falta engañatzeko nunnaire, mingaiñ lagunik; kontzienzirik ezdan tokian ezdala arkitzen gauz onik.

— XI —

Aiñtziñetako amonaxua kokotz azpian ichita; ta, gonak berriz, danak estali oiñak agiriñ utzita; besoak ere, ori jakiña eskuteraño jextita; Elizetara, egiten zuten gaurkoak aiñbat bisita; moda zikiñok eztria sortu lengoak erakusita.

— XII —

Au da azkena, amaitutzeko onekin dira amabi; pentsatzen nago, ote diraden emakumean mingarri; ok danantzako, berdiñak daude berexi gabe iñori; ikusizia, kalte'iran gauzak bistan diralako agiri; oker badaude, barkazioa eskatze'izutet, danori.

MARTIN OREJA'K - JARRIAK - 1966

Bertsolaritza

Gure euskal-erriak berekin ditu edo berezkoak zaizkio beti pelotariak, aizkolariak, arrijasotzaleak, txixtulariak, akordeonixtak, dantzariak ta abar. Ez da erririk, txikienetakoa izan arren, aitatutako kirol edo deporte oieta-rik ez daramakitenik. Badute, bat ez bada bestea.

Bañan, euskaldun guztiok, denok, barren-barrendik maite ta poztutzen gaituen gauz bat «bertsolaritza» degu. Zorionez, gure errietan bertsolari asko ditugu; batzuek onak, besteak obeagoak. Danok, txalagarriak dira. Danoi, Jainkoak eman die almen ta doai aundi ori. Kulturik gabekoa izanagatik, au da, ezjakiña izan ta ere, bertso ederrak egiten ditu. Jakintza (kultura) izan edo ez izan —obe izatea— berdin antolatzen ditu bertsoak.

Asko dira ezagutzen ditugun bertsolariak, bañan, askoz geiago dira ezagutzen ez ditugunak; edo, beñepein, txapelketa ta beste okasio askotan auzalten ez diranak. Ortxe, arkitzen dira bada, ixillean ta izkutuan etorre- ra ta ongi antolatzaile diran bertsolari lotsatiak; jendearen aurrera azal- tzea kantari lotsatzen diranak.

Ongi deritzait illeroko «PRINCIPE DE VIANA»n argitaratzea napartar euskaldunok irakurri ta ausnartu ditzaten, onako amar bertso polit ta ma- mitsu auker. Euskerari buruz egiñak dira «ixillean» egoten den mutil gazte buru argitsu batek. Ona zer dion:

— 1 —

Lagun euskaldun irakurleak kantari nator zuengan, biotz barrengo naigabetxo au iya aitortutzen dedan. Neure ustetan gu euskaldunok lasaitxo bizi aukeran, ezpaitakigu gu zer ontasan lurperatzen ai geran; urtetik urtera gure izkuntza galduez dator gainberan.

— 2 —

Gure artean ezagutu zan bizitzaren lenbizirik izkuntza goxo eta sakona, garbia beste aldetik; lenengo itzak zez ote ziran Betiko Aitaren aotik? Esan leiteke aingerutxoak jetxi zutela zerutik lur ontan gendun millaka urtetan Jesukristoren aurretik.

— 3 —

Ainbat urtetan zenbat naigabe sortu dan Euskal-errira, izkuntzkatik bizia emanak ainbat aitona badira; esaten zuten: gure euskera askatzea komeni-da, guratso aiek izar artetik an daude guri begira, negargarri da: aien legeak utsera biurtu dira.

— 4 —

Guratso aiek eskatzen zuten maitetasun guztiarekin: «bildurrik gabe toki danetan

izkuntza garbiz itz egin; zuek zerate gure oiñari euskera galdu ez dedin, indar berritzen eta zabaltzen egin zazute alegin», ni lotsatzen naiz ikusitzean ez degula ezer egin.

— 5 —


Aurrerapenak ta erreztasuna borobildurik lurrian gauza geienak indartu dira, danak nai dute aurrian; gure izkuntza bakar bakarrak oraindik lengo neurrian, urtetik urtera atzeraka ain era negargarrian lengo guratso aien odola z'nun da gaur Euskal-errian?

— 6 —

Ikusten degu nundik datorren ekaitzikan gogorrera, erderaz asko, euskeraz gutxi, gaurko gaztedi geiena; txorakeritzat artutzen dute erakutsitzen zaiena, lagun taldea geiena dela euskeraz ez dakiena, gaztedi maite z'zuk al damazu gure izkuntzan azkena?

— 7 —

Arnasik eman nai badiogu zuzen jokatzeko ikasi, lenengo lana nork bere etxean euskera ona erakutsi; lagun artean dabiltzanean beti erderaz ez utzi, gure izkuntzak ez ote dauka beste batek ainbat grazi?



MENDIZ

EMEN DAGO AMERIKA...

¡Amerika! Au da gazte aunitzen ametsa: Amerika' tara joatea. Badu kontua ara joateak? Gaur galdera oneri erantzun bear diot.

Orain dala denbora guti, gazte batek Amerika'tik egindako karta bat leitu nuen. Zer egi aundiak erraten ditun karta ortan! Leitu ilbeltzan emandako numero edo rebista ontan. Egi «verdaderoak» dire.

Nik uste, mutil batek Ameriketara joatean, bakarrik pensatzen duela artu bear ditun amar milla peza auetan, eta ez nola bizi bear duen auek irabazitzeko.

Erria utzi, familia utzi, lagunak utzi, bakarrik bizi mendi batean, ez apez, erriko gauz on guziak aztu, urterik oberenak pasa, eta ori dena dirua izateagatik. Eta zenbat gauz pensatzen diren bakarrik bizi, eta zenbat esutzen den burua...

Eta emen zer dago? Emen ez dezu amar milla peza artuko, bañan entzun ondo. Zer da oberena: amar milla peza illean eta an bezala bizi, edo emengo iru, lau, bost... milla peza, eta zure lagun artean bizi, zure

errian edo zure klaseko gende artean, zortzi ordu lana eginda, eta zerbait gertatuz gero etxera etortzeko moduan?

Eta modu ortara nola «cochea» izan, nola sos puska bat egin? Aski dezu ori ongi bizitzeko?

Dirua, bizitzeko, bañan EZ bizi dirua izateko.

Eta gurasoak nola pensatzen dute gauz ontaz? Iduri dunaz, semeak bezala.

Kristabak bezala kunplitzeko, ez da aski erratera zuen semei: zoaz Amerike'tara, an irabaziko dezu sosa aski. Nola gurasoak, nola semeak, pensatu bear dute, persona bezala eta kristaba bezala obeak izanen diren edo ez. Zer, sakela diruz beterik ekartzen badute eta biotza federik gabe? nun geldituko dire oitura onak, iru, sei edo urte batzuek an egonda?

Nola prestatuak joaten dire gure gazteak? Ezer jakin gabe, ezta ere zer «derecho» dauzkaten, itz batean: BAKARRIK, eta BAKARRIK bizi sentidu guzietan.

Nun dago Amerika: an edo emen?...

IKASI, MIKASI...

ARREK BEIÑEPEIN AURPEGI TXARRA ZERAMAN, BADA...!

Gure «amerikano»akin alkar-izketa izandu nuen biaramonean:

—¿Ongi lo egin da, Miljoxpe?

—Ez ta batere.

—¿Be, bada?

—Gabe guzin pensa ta pensa eondu naiz, berrerek esan zitidan gauzetaz.

—¿Ta?

—Bai. Nai ta naiez, siñistu bear da Jaungoikorik ez balitz, elitzekela deus izan. Erleju batek, etxe batek, bere egillea izan badu, ¿nola diteke mundu guzi au Jaungoiko gabe? Baño...

—Baño, ¿ze?

—Beste gogorazio batek erotzen nau.

—¿Ze gomutaki da ori?

—Munduko biziztun guziak, naiz egaztiak, naiz abereak, mundu ontan jaio ta mundu ontan il da usteltzen badire, ¿gizona bakarrik bizi bear da betitasun guzian?

—Gizonak, bakarrik, arima illezkorra duelako.

—¿Ez lidake berorrek esango, argi eta garbi, nola den ori?

—Pozik, gañera.

—Ia, bada.

—¿Zergatik da gizona mundu guziko errege? ¿Indartsuagoa delako? ¿Arintsuagoa delako? Abere asko dire indartsuagoak. Ta egazti guziak, arifeagokoak...

—Ezin diteke ukatu gizona mundu ontako jaun da jabe dela, baño bera ere mundu ontakoa...

—Emen jaioa, bai, baño ez oneakoa. Beste abere guziak —dio San Agustinek— lurrea begira dabilte; gizona, bakarrik, txutik; lurrea ta zerura begitzeko eran. Zergatik, lurrean bizi bear badu, zerua da gizonen aberria.

—Egaztiak eta abereak ere ¿ez dute nolabaiteko arima?

—Nolabaitekoa, bai, baño oso gogozkoa (espirituala), ez. Ta illezkorra, bein Jaungoikoak sortu ezkerorill ezditekera, ez.

—¿Nok daki gure arimak eta abereen arimak desberdiñek derela?

—Ori, piske bat pensatzeko burua degunentzat, gauza agiria da.

—Nik ez det, bada, ain agiri ekusten.

—Begira, Miljoxpe. Gauza bako-

txen ondorekoak erakusten digite nolakoa den beren jatorri edo sorkundea. Gaiki (Material): ikusi, aitu, ukitu diteken gauzak, ezin deza egin gaiki ikusi, aitu, ukitu ez ditekenik. Gure arima, ikusi, aitu, ukitu ez diteken jatorria bada nola diren edertasunen, zuzenbideen, gaiztakerien ezagutzak, bearko degu esan oso gogozkoa dela: espirituala dela. Ta gaiki dena bakarrik usteltzen bada, gure arima, oso gogozkoa izan ezkeror, ezin da usteldu: illezkorra da.

—Nik aitu det, ba, bein baño geiagotan, eriotza ondoan ez dago la deus.

—Bai. Nik ere aditu izan det mila bider. Baño askotan, esaten da esateagatik. Ara, emen, gertaketa polit bat. Bein, elizkizuna bukatuta, iltegitik gatzela, esan zidan emakume elizkoï batek:

—Jauna, ori ere juan zaigu...

—Denak juan bear degun bezala.

—¿Denak juan bear, au da komedi txarra!

—¿Piztuko gera noizbait, emakume!

—¿Berorrek uste du baietz?

—Ez det, bada, siñistuko?

—¿Uumr! Arrek beiñepin aurpegi txarra zeraman, bada...!

Emakume arrek bezala, askok diote eriotza ondoan ez dela deus, inor ez dela beste mundutik itzuli, eta orreiako ergelkeri bat edo beste. Baño munduko erri guzietan eta erligio guzietan illak begiramendu mundiaz obiratzen ditute, eta beren alde oitutz berotsuak egin ere. Ildeen berriz-jekitzea ez siñistu eskeror, alperrik eta uts izango litzake beren alde oitutz egitea.

—¿Egia da, orduan, gure anima illezkorra dela, ta azkeneko egunean gure gorputza ere piztuko dela?

—Egia. Jesukristo berak esaten digu bere ebanjelio santuan:

EZ BILDURRIK IZAN, ZUEN GORPUTZA IL, BAI, BAÑO ZUEN ANIMA GALTZEKO ALMENIK EZZUTENAI; BAIZIK BILDUR IZAN, ZUEN GORPUTZ ETA ZUEN ANIMA INFERNURA BIALDU DEZAKENAI (Mateo, 10-28).



Lau gazte, Zubieta erriko semeak, Franzi'ko mendi zoko batean. Lauetatik iru Telletxea anaiak dira.

A. ASTIZ ARREGI

GOGOETAK

Bein baño geiagotan, nere adiskide maite batek eskeindu dira faborez euskal-lantxo zenbeit argitaratzea noizian bein bedere, PRINCIPE DE VIANA'ren menean agertzen den horrialde huntan, azkenean bere telekak garaitu nau.

Nahiz ez usatua idaztera euskal gaietaz, nago nere baitan egin behar dugula gure aldetik ahal dezakegun guztia napartarren artean, gure euskara maitea sustatu eta bizkortu dedin, piztuaraziz berexiki gazterien artean amodio eta zaletasuna gure gauzetaz.

Beraz, barkatuko nauzuen irakurle maiteak nere ausartzia euskarari dagokion arazoetan, eta hemen natorkizue zuekin «ixtanpat» solas egitera.

Ni, aspaldidanik keketan nago gure napar aldeko euskararenak ¿egin ote du? Beldur naiz... bañan ez dugu inondikan etsitu behar, ikusten dugunean atzeratzen orako aldian huntan, euskara eta euskal izaitea.

Ez da berant oraindik nere ustez, aunitz egin dezakegu bakotzak gure aldetik euskaldunek, bereziki letradunek, ahala geiago agertzen baginuke.

Ikusten dugu eta zer pozaldi goxoarekin iratzartze hori Naparroako herrietan, gero ta geiago trebetzen direnak euskaraz idazten egunkari eta paperetan.

¿Ez da arrigarri ainbeste irakurgai motak irakurtzea gaurko egunetan! Heken artean, frango mutiko-neskatiko adin gordinekoak. Olakorik, ez ginuen ametsetan ere ikusten lehenago.

Nolanai den dela, eta berant bada berant, gure agintariek esnatu dire, ohorezko malletan aipa dezakegu Naparroako Diputazioa, zeñek aspaldiko partez laguntza baliosa emaiten du, dirua xahutuz gure euskera (Lingua Navarrorum) xaharraren alde, ainbeste denboraz zokoratua eta umezurtz bat baliz bezala utzia mendez-mende alde bat.

Bañan zoritxarrez, ez dira aski sendagaiu horiek gaurko mundu moderno huntan; gure guratsoen izkuntza kenka gaixtoan aurkitzen zaigu, progreso delako aurrerapenak, eta haren bidez asmatutako tresna miresgarriak nola: irrata, televixta, zine eta, eta, itotzen gaitu sartzen direla-koz etxetan.

Itz gutxitan, arrotzekilako izkuntza, ohiturak, kantak, dantzak eta nik dakita zer, nagusitzen dira herriko eta baserri urrutirañotara, emeki emeki menderatuz gisa huntan euskaldungoa eta sunsitzen gure izate berexia eta ohitura zaharrak, aspaldidanik orain arteño iraunduak.

Kaite larriena eta beldurgarriena, aurtzaroan dauden ume txikiari ukitzen du, bertzelakatzu beren adimena eta gogo biotza, oraño deliketua elderi orreri ysaiteko.

Urteak joan eta urteak yin, inork ez dezake asma zer atsegin, zer nahigabe eta zer aldakuntzak ekarriko gaituen unelako munduak.


Beñipein, gure eginbeharrak euskaldunki bete dezagun guztiok, gure etxetan, karriketetan eta plazan, zintzoki jokatzu eta Jainkoak lagun... ge-roak ikusiko.

Azken orduan eta egunkarietan irakurturik, poz aundirekin jakin dugu nola Euskaltzaindiak (Academia de la Lengua Vasca) zuzendu dabela Gobernuo jauneri idazki mamitsu eta eder bat, galdegiten erdiets dezala len bai len, laguntza euskararen alde. Bai, ateka estu batean aurkitzen gera euskaldunak gaurko egunetan, beharrezkoa dugu eskubide geiago; Gobernuaren meneko Ikastetxe Nagusi, gazte eta haur eskoletan, sarrera emanaz atea zabalik eta zor zaion ohorea eta nortasuna Espainiako izkuntza zaharrenari.

¿Erdietsiko ote da zerbait oraikoan?

Beldur nago aspertu bazaitzuet gogapen illun auiekin; ementxe uzten dazuet, eta lerro okeen bitartez lana au bururatu baño leen irakurle maitea, Jainkoak eman dezazula, makurrik gabeko urte berri on bat.

ATALOZTI



EUSKAL KIROLAK

Errege egunean Donosti'ko Trinitateko plazan berriz ere aizkora apostua eta borrokaldi untan arruiztarra eta Mitxelena aranaztarra buruz buru, oinbiko egurrak moztu beharrak zituztela (1'70 m itzulia). Arruiz'ko Txikia onbor baten abantaila ematen zion, aranaztarrek lau ebaki behar eta bortz arruiztarrek, biek batean asita eta nor lehenka. Oraingoan arruiztarra apal gelditu da eginahalak agertu ditu bainan alferrik, Mitxelena'k aisa irabazi baitio.

Txapelketaren Azken partida yokatu zen. Ruiz Larrinaga anaiak ariznarrak dira Arratxe eta Irigoien'en kontra. Lenbizien partida arras atakatu izan zen eta gisa ortan 22 tantoraño untan berdindu zirelarik, gero anaiak aintzinaldia arturik ol ola partida bururatu artio airez aire irabazi zuten, (50-29) trinketeko Txapelgoa bereganatuz. Zorionak Ruiz de Larrinaga Txapelunduan anaiari eta bai bertze gañerakoeri ere.

Txapelketa untan bortz bikote baztandar ari izanak dira eta emen beren izenak:

- Ruiz de Larrinaga anaiak, Arizkundarrak.
- Arratxe eta Irigoien, Arizkundarrak.
- Ospital eta Bertiz, Errazu eta Irurita.
- Agerre eta Fagoaga, Erratzuarrak.
- Mugiro eta Alzuguren, Elizondarrak.

Irabaztaleak lau onborrak 47-46 m/tan moztu ditu eta galtzaleak bortzak 54-57 m/tan, or ageri da aranaztarra frankil ibilia dela. Lenago ere Mitxelena'k badu bertze apostu bat yokatua eta irabazia (Azaroaren 20 ean gorritiarrarekin), eta orra bigarren aldian ere irabaztale. Ezagun du oiantzalea izana dela eta aizkorian ongi dakiela, badu bai adrendue.

Eguraldi zigarri txarra zagon baino alaere yende aunitz Trinitateko plazan.

PILOTARIAK

Ilbeltza'ren 22'an Elizondo'ko An-txitoneko trinketean, esku uskako

Partida politik ikusi ditugu eta Leiaketa unek izan du erreliste. Gazte oietan bada pilotari onaren gaia eta aunitz poztutzen gara, yarraiki gazteak zuetan dago pilota yokaren itxaropena.



ERRIZ - ERRI

Santa Agedaren kantari-taldeak Iruñe'an



Onako fotoan Santa Agedaren Bezperako Kantari-Talde bat Iruñe'ko karriketatik zear, egunari doazkion kanta zaharrak kantatzen: «Santa Ageda bezperadugu, Euskalerriko eguna, etxe guziak kantuz poztoko aukeratua duguna...» bakoitzak makilla duela, txistulariak, auspo-soñuak eta dena



BAZTAN

BERTSOLARIAK

Erran bezala joan den Ilbeltzaren 15'ean Elizondo'ko Antxitoneko trinketeen bertsolari besta eder bat ospatu da. Bereartan ari izanak dira: Uztapide, Lasarte, Arotzarena eta Lazkao-Txiki, ospe aundiko koblariek eta denok maite ditugunak. Trinketea leporaño bete zen eta berriz ere erranen dugu euskaldun yendeak gure bertsolariak aunitz maite dituela, an baziren Baztan'go yendeak, Malderreka eta Bidasokoak, Gipuzko aldekoak eta bai mugaz bestaldeko eskualdunak ere denak zaletasun aundia erakusten zutelarik. Gure koblarieen aitaldia denen gogokoak izan da, ordu t'erdiko kantaldian aritu ziren eta egia erran yendea bertez ordu bat geiago ere egonen zen izan ere iñor ezpaitzen aspertzen. Zer txalo ta esku-zartak bertsolarien ohoretan! Eztugu iñor berexiko, lauak onak eta elkarren idurikoak baitira. Erabili zituzten gaiak ere egokiak ziren, errexak eta yendearen gogokoak. Baztandar guziok oroitzapen eder ori gure biotzetan gordetuko dugu. Zorionak lau bertsolariari. Gure esker onak entzule guzietatik zuek erakutsi baitduzue bertsolariak maite dituzuela eta gure bertsolariak maite dituenak eskuara ere maite du. Yarraiki ortan, bada kigu gure erri baztandarrak eralduntzen ari direla eta norena da errua? Ori ongi aski dakigu bainan utzi ditzagun negar oiek alde batera eta saiatu gaitzen eskual kultura gure errietan edatuz gazterien biotzetan eskuararenganako maitasuna sar dadien.

SAN ANTON

Aurten ere bertez urtetan bezala San Anton eguna ospatu da Elizon-



LEITZA'KO «INDUSTRIAL ETA NEKAZARITZA» ESKOLAKO IKASLEAK.

do'n. Goizean Meza kantatua eskualdean aitzakia apostua izan ginuen, Latasa bakarrik, Agerre ta Altzuarlibrean. Alde bakotzak bi kana-erte baztandarren kontra, ok txanda diko ta zortzi 45 ontzako moztu beharrak. Latasa bizkor dago eta gure baztandarrak arendako kontrario ttipiak izandu ziren, sunbildarrak aisa irabazi baizuen. Yoko gustagarria eta yende aunitz trinketean.

Arratsaldean Antxitoneko trinketeen aitzakia apostua izan ginuen, Latasa bakarrik, Agerre ta Altzuarlibrean. Alde bakotzak bi kana-erte baztandarren kontra, ok txanda diko ta zortzi 45 ontzako moztu beharrak. Latasa bizkor dago eta gure baztandarrak arendako kontrario ttipiak izandu ziren, sunbildarrak aisa irabazi baizuen. Yoko gustagarria eta yende aunitz trinketean.

IZETA

ALMANDOZ

Almandoz'ko erria zori onean dago. Ogei mila duro artu ditu, erria bear den bezala apaindu duelakoz. Diputazioak eman dizkio peza auek premio bezala.



Ara emen etxe auetatik bat amar milla peza premia izandu duena. Zergatik ez ola erri guziek? eta etxetako nagusiek ez dire «animatzen»?

Aupatu bear degu elkarrerri, eta laster ikusi dezazkegun garbi eta apaindurikan erri guziak.

Zorionak Almandok'ko erriari, eta joan den urtean erria obekien apaindu duenantzako Ministerio de Información y Turismo delakoak jarri duen premia, saiatu Naparro'ra ekartzeko.



LEITZA

Leizako AMAZABAL Elkarteak, jakintzaren alde lan gustagarria ta aurrerabide aundikoa egiten ari da.

Naparroan Industria indar aundia artzen asi da. Baño industriak langille prestatuak eskatzen ditu. Gure errietako gazteak, aur garaieko eskola besterik nekez izandu dute. Aien ikaskuntza, gazte sasoiekoa, aizkora ta aitzurra izan da. Orregatik asko ta asko dira oraindik Naparroko euskal errietatik baso lanera joaten diran gazteak beste lanbide egokiagorik artzeko pretaerarik izan ez dutelako. Negargarria da benetan gertatzen dana. Euskal erriko gazte bikañenak eta mardulenak bere jaioterria utzi eta urruti dijoazte lanera. Eta kanpotik eldu zaizkigu gure gazteak egindako ustarteak betetzera.

Gertaera au ikusirik, Leizako Amazabal Elkarteak jokabide txalagarria artu du: Gure errietako gazteak eskolatzeko bide jarzteak. Gazteak industria aldera edo baserrira jokatu bearra daukate, geienak beintzat. Bi era oietan, argi ta sakon, berekin dauzkaten arazoak ongi ezagutu eta arazoai zuzen, gogotsu ta buruz erantzuteko, aurretik ongi prestatu bear du. Asmo onekin Leizako errian bi ikastola idiki dira. Bat industrialia edo profesionala eta bestea Nekazari Ikastola. Ikastola industrialia, joan den urriaren ama-bostean asi zan, ogei ta iru mutil gazttxoekin.

NEKAZARI IKASTOLA

Gure iritzirako auxe zan ikastola bat premizkoa, oso bearrezkoa. Nekazariak estu ta larri arkitzen dira. Esku-artearen arazo zallak daukate, eta bizi modu latza etorri zaioete. Gaur baserritarrak jakintzaz aberastu bearrak arkitzen dira. Beren lanetan jokabide berri batzuk derriortu bearrak dituzte. Gaurko egunean, era guzietako lanetan elkartasuna billatzen da. Baserritarrak ere ez daukate beste bide egokiagorik, eta txutik irauñ nai badute, bakar-dadea utzi ta elkartu. Bide berri bat artu bear danean ez dira falta izaten saietetik sasi moxorroak zirrikaka oztopoak jarri naiez. Gauzak onela ikusiz, jaiio da Leizan Nekazari ikastola, lendabizikoa Naparroan. Joan den Azaroaren iruan idiki zan. Ogei ta amar mutil gazttxo sartu ziran eta gaurko egunean jarraitzen dute.

Ikasketa onek bi urte iraungo ditu. Ez da Leizako errirako bakarrik jarritakoa, baizik Naparroako euskal baserritar guzientzako. Amalau urtetatik amazazpi bitartekoak artzen ditu. Nekazari semeak edo nekazaritzako asmoa dutenak. Aurten etorri zaizkigu; Araiztik, Larraundik, Imoztik, Basaburutik, Burgetetik, Doneztebe aldetik eta Baztandik. Larunbata atsaldean joaten dira beren etxeetara ta astelenean itzuli.

Ikastola au ez da izanen mutil gazttxoen ezitzea bakarrik, baizik nekazari onduekin ere artu emana aundia dauka. Ikastola onen buru eta zuzendari jarri da euskaldun jator bat, baserriko gora berak ongi ezagutzen dituan, lan oietan eskolatua, ta baserrian azia ta ezia. Onen egitekorik aundienetako bat, ikastolako laguntzak baserritarrei eskeintzea izango da.

Datorren illabetetik, orri ontan asiko da idazten, eta bere erakustaldiak ikasteko bidea izango dezute.

OIALDE



Lanz erriko Iñautea. Bere sonak urteoro yendeketa biltzen du

IÑAUTEAK NAPARROAN

Ihaute egun auetan zernahi oitura bada gure erri eskualdunetan. Garai batez moxorro ta «maska»; piperopil eta dantzak, mutiko ta neska, izaitzen zen nahaskeri bazterretan.

Gaur, ez dira legez egiten ahal.

Haurrak, an emenka, baietz erranen dute; eder zaiela mutikoer gonak jaztea, eta neskatoer gizonen arropak. Gero, ihats eta makilak botako dituzte eta berriz jende; berriz eskolara joiteko prest.

Bana, joanak joan, bada oraindik gure artean egun oietako oroitzarri frango. «Miel Otxin» eta «Zanpanzar», «Viva el Bobo» eta Luzaideko Bolantak, erran lezakete zerbait.

Eta Luzaide aipatu bai dugu, baziren ardi larruan eta andere xaharrez bezitzen zirenak: bazen axerri bat eta otsoa; artzain eta laborariak, beren zata eta xamarrekin.

Etxe etxe ateratzen ziren, soinu eta yantzari; eta «Yantzauziak» egiteko artetik, axeria etzen lo egiten oillategi eta zoko bazterretan ikusten zuena arropatzeko. Auzo bakoitzeko mutikoak bazuten beren egun berezia. Ihaute asteartea zen karrikatarrena.


Ez dute izen polita «atxetatupinak»; izatez ere joko trakets eta bortitza da. Bi mutil gaizki jantziek egiten dute besta. Bat larruz estalia eta emakume arropan bestea. Biak sonbel aundi, ator zirzil eta elorri latzekin...

Tanborra beste soinurik ez. Jendea ere ixil. Plazari iru itzuli eman ondoan hasten da kalapita; eta zer kalapita! «Zarpilak» —trapuzko pilota estua da «zarpila»—, badu nun eman. Baten ator puska, bestearen xapela; ardi larru eta elorriak, an joaiten dira arrikan. Erdi buluzirik uzten dituzte biak.

Ihaut egunetako oroitzapenak. Bazterretxe guziak ibili ondoan, ilun nabarrean, ardi larru eta gonakeri guziak mutulari kentzeko egiten zituzten «atxetatupinak».

Ortako erran dugu aintzinean, oiek guziak mintzatzen ahal balira! Zenbat gauza erran lezaketen!

SAGI



Zubieta eta Ituren'go errietako «Zanpanzarrak». Irudian «Txuntxurro».



«Atxetatupinak» Luzaide'n. Aurtean emakume arropaz jantzitako mutilla ongi ikusten da. Bere eskuan «zarpila» derama.



IRUÑA

IRUÑEKO BERRI LLABURRAK

On Juan Miguel Arrieta Iruñeko Alkate jaunak alkategoa utzi du iru urtez iraundurik bere karguan. Haren ordain bezala izendatu dute on Angel Goikoetxea yauna; azken

unek egunkarietako gazeta egileri erran omen du, gure xede behar beharrenek eta egiteko premiatsuenak direla gaurko egunetan: ur geiego ekartzea Iruñeratik, Eugin egiten ari diren aintziratik; eta bigarrena, bizitegi geigo altxatzea yende xehentzat.

Bai egia da, bañan hok eta beste buru-auste geigo sortuko dira datorren urteetan alik eta hiria edatzen den ber, badauka Alkate berriak non lan egin bazterrak xuritzeko eta trabak kentzeko bide erditik.



EUSKAL BIBLIOGRAPHIA

BUSTINZA EBARISTO (KIRIKIÑO). ABARRAK (2 GARREN EDIZIO-NEA). — BILBAO 1966

Duela egun gutti euskal liburu balios bat argitaratu du A. Onaindia idazlari eta lanzaile errimiak. Irakurle zaarrek ezagun dituzten Bustinza izkiriatale bizkaitarraren Abarrak deitu liburuxkak, molde-tan atera dira berriz. Bigarren edizioa beraz, ezen liburu horiek 1918 eta 1930 urteetan argitaratuak izan ziren leen aldiz.

Arrakesta haundia izan zuten orduan, gai atsegiñak eta humoretsuak erabiltzen baizituen mañaritar idazlariak. Eta ez pentsa gero hunekin, pellokeri eta kaikukeriz bete zituela liburuak Kirikiño (Kirikiño, izen-ordea zuen).

Irringarriak dirala bai ipuiñak, baina bide batez erakasbide sakon bat barrenean dutela askotan, ezin uka. Aurpegi alaiak, irria egin araziz eskolatzen beraz, beialako jakintsuak eskatzen zuen bezala.

Bainan ezitira hortan gelditzen Bustinza-ren merezimenduak; herriko euskara ber-bera erabili zuen beti bere esakera bixiekin, berrikeri guttikin. 1925 urte inguru haietako euskal aroa ezagun behar litzake, Bustinza-ren marka zeazki negurtzeko.

A. Onaindiak lan neketsua bururatu du, eta ontsa gafiñera. Abarrak direlako ipuiñaz gainera, Kirikiñoen beste irakurgaiekin (Azkue-ren «Euskalzale» aldizkari hartan agertuak, emendatu du liburu-a beste horrenbestean kasik.

Leen partean, Abarrak bi liburuxkak agertzen dira osorik. Ipuinen artean, Tximistargi barria — Deun izateko bidean — Atxuriko milla-grua — Misionari bat — edo Zerutar bat izenekoak aipagarri dira; eta erdaralat edo gure euskalkira pasatuz, batere galduko elukete-nak. Irri egiteko autak izanagatik, euskaldun zaarren zentzua azal-zen dutenak aunitz.

Bigarren partean, Euskeranganako zaletasuna pixteko artikulo er-neak dakazki liburukak, gure menditarren adimenduen einek arrazoi-nak azalduz, ez txoilki laudorio zozoak. Karlsten gerlaondoko, 1902-3 urtetako euskalzale etsitu-haien gertakariak ere irakurtzen dira.

Urte batzu leentxago kendu zuen Gobernuak, Gipuzko-eskoleta-tik euskera, hango Diputazioaren balaku eta aserre guztieri kasu-rik egin gabe. Geroago, 1902 urtean, Romanones-en aginduz debe-katua izan zen Euskalherriko Eskoletan euskarazko Dotriña. Bidega-bekeri hunen kontra catalan diputaduak altxatu ziren Parlamentian; gure euskal Diputaduak axolagabe zeuden; Urquijo izan omen zen bakarra, aserrea erakutsi zuena Cortesetan.

Beste abantaila baliosa badu liburu horrek; bizkaiko euskarak di-tuen aozkera bereziak (argixa, barrixa, buruba, eta halako) kendu ditu Onaindiak, testoko hitz bat ere aldatu gabe haatik. Irakurlearen erreztasunera urrats haundia, eta berdin euskalkien batasun aldera ere. Bizkaiko ezdiren besteentzat berriz, hitz batzuen esan naiak ondarraldera, etziren gaizki etorriko.

Hala ere, irakurtzeko erreztasun apur bat dutenek, elukete liburu erriko eta mamitsu hau bazterrerat utzi behar.

A. APAT-ETXEBARNE



—Ama! Nik ez dut Mañes'ekin ezkondu nahi!

—Eta zertako ez?

—Esan du ez duela ifernuan si-nesterik... eta ori ez da ona.

—Horregatik bakarrik! Ik eta nik erakutsiko zionau ori!

—Leporaño beterik naukate zure aginetako miñak! Agin ori nerea izan balitz, aspaldi ateraia nuen...

—Nik ere aterako nuen zurea izan balitz!!

ESKOLAN

—Juanito. Amairu ardi balin badi-tuzu larrean eta zazpi iges egin: Zenbat gelditzen zaizkizu?

—Ez ta bat ere!

—Noiz ikasiko duzu! Amairutatik zazpi kentzen badira... sei dira gel-ditzen!

—Ez, jauna, ez! Zuk eskola asko jakinen duzu baño ardien berri aundirik ez duzu. Lepoa jokatuko nizuke zazpi atera diren lekutik besteak ere joanak direla!

Mesedez, zuretako gordeko duzu nik orai esango dizutena?

—Bai, bai! Ez da nere ezpaineta-tik aterako.

—Ogei duro behar nituzke ta... —Ez bildurrik ibili! Adu ez banu bezala.

Emakume batek anka autsi du. Kizuz inguratu eta etxera biltzean medikuak, ilabete batez ez duela es-kaleretan ibili behar esan dio.

Ilabetearen buruan kizua kendu bai dio, gaizok galdetzen dio:

—Eta orai eskaleretan ibili al nai-ke?

—Bai naski, nahi duzun guzia.

—Atsegin artuko dut! Eskalera baztarreko agan arrastaka ibilia naiz ilabete guzian!

OSTATUAN

Jan eta jan ari da gizon bat. Arri-turik dauzka sukaldekoak.

Saldaren ondotik ardoa edan eta:

«—Zer gauza ona den saldarekin ar-doa!». Aragiaren ondotik ere «buen trago!». Gero nun esaten duen:

—Zer gauza ona den aragiarekin ar-doa!

Azkenean gazta atera diote, eta-gaztarekin ardoa! Irugarren aldiz:

—Zer gauza ona den gaztarekin ar-doa!

—Aizu! Zuri zerekin etzaizu on ar-doa?

—Urarekin, jauna!

karrik ongi eginez, saindutuko gi-nezke nik uste!

E.: Berdin, bearrean dagona lagun-zea (lanetan, edo diruz, edo era-kuste on batekin, edo bere za-lantz edo dudetan argitasuna emanez ta bide onetik lagunduz). Eta zenbat orrelako gauz on ez ditez-ken egin elgarren onetan!... Gauz ok ez bazaizkitzue gogokoak, zoaz-te apezarengana, ia arek...

M.: Ogi nonbait apezarengana bial-tzekotan zabilte! Otx xamarra naizela zuk uste naski!... Galdera bat: eta preziki au ortzilarean egin bear duzu beti?

E.: Arrazoin aski baldin bada, alda daike berze egun batera nik uste. Eta untan, zuk eta nik, berze frankok bezala, zer egin eta eginazi baginuke alaintso!

M.: Zer bada?

E.: Gure senarrentzat, gure seme-alaba kozkortuentzat, ortzilaretik igande, merkatu, feri ta zorrobet-tetara penitentzi egune aldatzea. Afalordurako etxerat egun oietan ere etortzea, izen bedi okentzat penitentzie: baño afalondan etxean gelditzekotan!

M.: Or zeon, or! Nere Pello afaltze-ra... etortzeun noizbaitere! Bai or-dea berriz ateratzen! Peniten-tzie... penitentzie... nerea, nerea penitentzie!

IBARRONDO



Arotzarena Naparro'ko Bertsolarien Txapelkun Iruñe'ko Gayarre Antz-tokian egin zuen Naparro'ko Azken Txapelketa Nagusian. Lenengo Saria, Kopa eta Txapela jasotzen ditu, Naparro'ko Diputazioaren "Euskeraren Alde"-ko Saillak emanak.



"EUSKERAREN ALDE"KO SAILLAREN BERRIAK

Saill onek emandako diru-laguntzei jarraituko dizkiegu: Iruñe'ko Apazgaitegiak, edo Seminarioak, apezgai trebe eta prestuak euskeraren gaietan izan ditezten, euskerazko ikastaldiak ditu, eta Diputa-zioak urtean sei milla pezetako laguntza ematen du.

Naparro'ko Ikastetxe Nagusiak, edo Unibersidadeak, Irakastegi bat badu euskal yakintzari buruz gaiak darabilzkiena eta leziuak irakasten dituen, «Euskal Yakintza eta Izkuntzaren Irakastegia» deitzen da. Diputazioak ur-tekoz laguntza bikain eta balios batez laguntzen du: 150.000 pezetakoa. Espero dugu Gure Unibersidadeak Irakastegi onen bidez, arduraz eta mai-tasunez beterik euskeraren alde lan aipagarriak egingo dituenik.

Azkue yakintzu zenaren «Euskal iztegiarentzat Diputazioak emanikako diru-laguntzak Euskal Akademiak artu ditu, onek Azkue'ren Iztegia zu-zendu, berriztatu osotu eta ornitzeko lanak eramaten dituelakoz.

Bertsolarien Txapelketak: Bertsolarien Sariketarak egiten dira Bertsolari-tza jaso eta zabaltzeko. Au izan da «Euskeraren Alde»-ko Saillak euske-raren onerako egin dituen lanik nabarmenetako bat. Bertsolarien Txapelke-tak eta Bertsolaritzak euskerari indar eta bizkortasuna eman ezgeroz eta Euskal Akademiak egindako Bertsolaritzaren aldeko deiari ontzat artu eta jarraituaz, Gure Diputazioak Naparro'an Bertsolarien Txapelketak antola-tzen asi zen. 1960 urtetik yon berri den urteño sei Naparro osoko Zein-geiagoketa eratu dira, diru xautzeak, eraketak, txapelketako berri eta xeeta-sunak zabaltzeko agiri ta lanak, diruzko premioak. txapelak... eta abar bere kontu izanik, Euskal Akademiaren ardurapean Txapelgoen zuzendaritza eta maipurutza izaten direlarik.

Denetara sei Bertsolarien Txapelketa antolatu dira Naparro'an; 1964 urterako urteoro ospatu ziren, eta geroztik Euskal Akademiaren asmoak onartuz, bi urtean bein; onengatik 1965 urtean etzuen Naparro'an, ezta Euskalherrian ere, Txapelketarik prestatu...

Txapelketa batek bi edo iru Probaketa txiki, edo Alderdiko, bear ditu. Ona emen Alderdiko Txapelketak egin diren errietako izenak: Lekunberri, Elizondo, Lesaka, Irurita, Leitze, Erratzu, Goizueta, Arizkun, Areso, Be-ruete, Lakuntza eta Igantzi.

Azken Txapelketa Nagusiak izan diren errietako izenak onako aukerak: Lesaka, Bidaso'ko Bera, Etxarri-Aranaz, eta Iruña (iru aldiz).

Ogei t'amar bertsolari aritu izan dira gure txapelketetan. Euskalherri osoko Txapelketetara Naparro'ren izenean yon diren izenak: Perure-na, Arizkungoa; Narbarte, Goizuetakoa; Arotzarena (Mikel), Lesakakoa; Zabaleta, Aresokoa. Aurten Naparro'tik Donosti'ra yonaren direnak: Mikel Arotzarena eta Andres Narbarte.

DONEZTEBE

Ilbeltzaren 29-garrenez eta arratsaldeko lau terdian, Doneztebe'ko errian izan genituen ikusteko poli-tak. Malda-erreak errietako biotza bezala degu Doneztebe. Erri asko arzten ditu aldamean eta auker beti izan oi dute bil-toki, Donez-tebe.

Aitatutako igande orretan, izan zuen jendeak nun ibilli ta nun josta. Uda-berriko egun bat iduri zuen egun orrek. Bero egiten zuen. Ilbel-tzak asiera txarra eman zigun txuri-txuri jantzi-ta azaldu zitzaigulakotz lenengo egunetan, bañan, gero, on-er-a biurtu zan ta bero egiten jarraitzen du idaztixu au antolatzen ari geran garaian.

Eta, goazen arira. Donezteben ga-biltz... BEAR-ZANA pelota-plazan jokatu ziran aizkolari, bertsolari ta aari-jokuak. Saioari asiera eman zio-ten iruna bertsokin Uztapide, Aro-tzarena ta Lasartek. Oso azertak egon ziran.

Gero, azaldu ziran gure eguneta-ko aizkolari famatuak: LATASA al-tsu, Martzelino ZEBERIO (Ataun-darra) eta Juan Krutz Azpirotz, ARRUZ'ko TXIKITO'ren aurka amabira enbor kana-erdiko mozteko. Latasak irabazi zien. Keman ta in-dar aundian arkitzen da Erramun Latasa.

Aari-jokua ikusteko-ere bazebil-lan jendearen tarteon iduripen ta iritzi franko... Batzuek, gipuzkoa-


rrak eramango zuela, ta besteak, na-partarrak; au obeago dela ura ba-ño; alako tokitan onenbeste «zan-petako» eman zizkiola ta dena odoletan utzi omen ziola... Dakigu-na da, batek irabazi zuela. Eta aixa gafiñera. Juan Mariezkurrena, ERA-TSUN'darrenak aixa kendu zion, BEDAIO'ko Antonio Beloki'renari.

Esan digutenez, Antonio Beloki'ren aaria, gipuzkoa'ko aari jokola-rietan onenetik gelditutakoa omen da. Bañan, Doneztebe'ko errian «al-de»txarra izan zuan. Bigarren kol-perako izutua zegola nabari izan zi-tzaion. Eta, irugarrenerako, iges egin zion kontrarioari eta... ¡galdu! Er-ne ta trabeslari zegoen jendea, bañan, uste etzan ederra-ere eramane zuen; diru poliki galdu bai zuten. Bost eun ta milla pezetakoa aixa zebiltzen Bedaio'tarraren alde.

Zer egingo da, bada. Jokoak be-reak ditu beti irabazteak ta galtzeak. Iñoz ezin esaten aal ziur: onek edo arrek eramango du. Utsak ta oke-rrak denontzat bai dira beti.

Eta, azkenez, iru bertsolariak izan zuten beren saioketa apostueri bu-ruz. Gero, orkesta «Beti-Jai» espe-tsua, jarraitu zion jaiari illunabar aldera arte. BEAR-ZANA plazak etzuen jende geiago arzten aal. Mi-lla bost eun pertsonetatik gora omen zan. ¡Zorionak denoi!

GORTARI'tar YON



MARITXU: Engraxi! Baru-bigiliekno-la egin aruten, erakutsiko datazu gaixo orrek!...

ENGRAXIK: Apez iauna gauz berean ari zaigu bada aspaldion: igan-dean azkenik...

M.: Bai? Ez nion aditu. Txerrie erdi bearra, ta San Anton'i arrosarioa erreza ta erreza aritu nintzen.

E.: Zer?

M.: Badakizu... egun guzian ta aste guzian lan ta lan... ta igandean, elizeko ordutxo ortan gauz aunitz egin bear...

E.: Auxe bai egi borobile! Gauz aunitz egin bear; eta denak ankar goiti. Gero gertatzen zaitze...

M.: Bon! Bon! Ez aserretu! Nik uste nuen apezek «pedrikuetan» beti gauz berak erraten zituztela: onak izateko... dantza lotuen ez aritze-ko... soñeko luzekin eta galtzer-diekin ibiltzeko... neskakak mu-tilekin egunez bakarrik solastatze-ko... ta ola...

E.: Gazte zinenean zerbait-zerbait entzun zinuela, ikusten da: baño or-duko pixka ta «modatik» pasatue-kin bakarrik gelditu zarelara ere, nabarmen duzu. Goazen baru-bijilietara. Nere erranakin ez bazara fi-do, io apezarengana!

M.: Zure agotik baño aundiagokoak arenetik entzuteko? Ez alaxeme!

E.: Oartu ongi. Oraí, nere iduriko, baru-bijili egunek badire: bijille egunek badire: ta penitentzi egu-nek badire, naiz ok ere bijili egu-nen izena eramane.

M.: Baru-bijili egunek, gutti izenen al dire!... Biek batean egitea, ba-tez ere gure gizonkientzat, gauz zalla da gero!

E.: Bai! Ez da zure zorroa ere porru-salda utsekin ixiltzen dena, ez! Baru-bijili egunek, bakar-bakarrik bi dire: Austerre egune ta Orzila-re Saindua.

M.: Austerre egunekoa, ederkí; gure gizonen iñautetako sukarra ken-tzeko! Bijili egunek, zein dire?

E.: Bijili egunek, Garizumeko orzila-re guziek. Eta bijili egitera amalau urte bete guziek bearturik gaude: baru egitera berriz, ogeitabatetik iruetanogei artekoak. Garbi dago?

M.: Bai, bai! Gure apezak olaxe era-kusten balitu..., gogoan artuko nuzke, bai, nik gauzek!

E.: Aski garbi mintzo da apezka: Zu linboan bizi, zu! Goazen aitzine. Garizumetik landara orzila-re gu-ziek, penitentzi egunek dire.

M.: Oi, oi, zenbat! Oietan guzietan, zer egin bear dugu?

E.: Geren burueri bortxa: egitea gos-tatzen diren gauz onak egitera ge-ren buru-biotzak oitu. Zuk eta nik, zure etxekoek eta nere etxekoek, egiten al ditugun gauz batzuk er-ranen dazkitzut. Egun oietan, nai baduzute, bijili egiten ahal duzute. Naiago izenez, baru. Obeki bazai-tzute, Meza saindua entzun. Edo etxeko guziok bateratu ta Errosa-rio saindue erran. Edo famili osoak sukaldean «Dotriña»-ri begi-raldi on bat eman.

M.: Bañegu bearra, no!

E.: Edo Liburu Saindu edo Bibliaren zati bat etxeko batek irakurri edo leitu, eta danok entzun eta go-goan artu. Bai eta autatzen ahal duzute ere ttantta uztea: pipatzeleek, ez pi-patzea: eta aski penitentzi zalla, lagunurkoaz egun guzian ongi mintzatzea.

M.: Ortzilareoro penitentzi auxe ba-